

## **ELA, STEILAS eta CCOO sindikatuek sekulako akordioa sinatu dute Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan**

### **Langileen antolakuntza eta grebaren indartzea izan dira patronalak langileen eskaerei erantzutera behartzeko eta Hezkuntza sailaren inplikazioa bultzatzeko gakoak**

29 greba egun barneratu dituen mobilizazio eta greba dinamika izan da akordio historiko hau lortzeko gakoa. Grebari eta grebalariei esker, 10 urtez Lan hitzarmena berri gabe izan duten langileen aldarrikapen nagusiek erantzuna izan dute, eta honek langileen lan baldintzetan, eta ondorioz ikasleek jasoko duten hezkuntzan eragin positibo nabaria izango du.

**Esparru prekarizatuenak eta feminizatuenak.** Lorpen nagusien artean, Hezkuntza laguntzako espezialisten jardunaldia urtean 97 ordu murriztuko da ( 1.390etik 1.293 orduko jardunaldira) eta astean ordu eta erdi izango dute koordinazio lanetarako (ordu bat lanaldi osoa baino lanaldi txikiagoa dutenentzat); HHko lehen zikloko langileei dagokienez, urteko lanaldian 45 orduko murrizketa izango dute (1.620tik 1.575 orduko jardunaldira), eta koordinaziorako urtean 125 ordu izango dituzte.

**Birkokapena eta erretiro partzial aurreratua.** Sindikatuok eta patronalak, Eusko Jaurlaritzaren babesa izango duen akordio bat itxi dugu, gela itxieragatik lanpostua gal dezaketen langileen birkokapena bermatuko duena. Sektoreko langile guztiak barnebiltzen dituen akordioa da, lanpostu galerarako zein birkokapenerako irizpide objetiboak eta jarraitu beharreko prozedura ezartzen duena. Eta birkokapena eraginkorra izateko funtsesko elementua duena: lanpostua gal dezaketen langileak birkokatu ahal izateko beharrezko lanpostu duinen sorrera ahalbideratzen du, adin bat duten langile guztiek erretiro partzial aurreratua %75eko jardunaldian hartzeko eskubidea izango bait dute eta ondorioz erretiroa hartzen duten langileen errelebista moduan lanaldi osoko behin betiko lanpostuak sortuko baitira.

**Soldata.** 2017-2020 bitarte azken 10 urte hauetan galdutako eros-ahalmenaren ia erdia berreskuratuko dute langileek, zehazki KPItik gora 4 puntuko soldata igoera izango dute lau urtetan banatuta. DBHko lehen zikloan ari diren irakasle lizentziadunek DBHko bigarren zikloko soldata parekatzea ere izango dute.

### **Lan kargak arintzeko neurriak.**

Irakasleek, lan pertsonalerako astean 3 ordu osagarri bermatuta izango dituzte zentroan egitekoak, eta urtean 40 ordu zenbatuko dira ikastetxetik kanpo egindako lanagatik.

Administrazio eta zerbitzuetako langileek urteko lanaldia 30 ordu txikiago izango dute (1585eko lanalditik 1555eko lanaldira) eta ordaindutako 2 egun libre izango dituzte.

Ordezkapenak: espero gabeko bajen ordezkapenak hirugarren egunetik aurrera egingo dira; esperotakoenak berriz lehen egunetik hiru egunetik gorakoak badira.

**Lanbide Heziketa.** Datorren ikasturterako, 2020-2021, irakasleen jardunaldiaren banaketa negoziatuko da, ordu lektibo eta osagarrien proportzionaltasuna mantenduz; baita lan zentruetako formazioaren jarraipenerako asteko 6 ordu lektiboen banaketa ere tutore eta

koordinatzailearen artean, gela edo tailerreko praktikaldietan 20 ikasle baino gutxiagoko geletan bi irakasleren presentziarekin batera.

ELA, STEILAS, eta CCOO sindikatuok sinatutako akordioaren garrantzia azpimarratu nahi dugu, ez bakarrik, orohar gure aldarrikapen guztiei erantzuten dioten primerako edukiak dituelako; baita, sektoreko patronalen zein Eusko Jaurlaritzaren borondateran kontra, sektore honetako langileen negoziazio kolektiborako eskubidearen aitortza kontsolidatzera datorrelako. Sektore honetako langileek, beraien lan baldintzak erabakitzeko eta baldintzatzeko aukera eta eskubidea dutela agerian geratu da akordio honekin.

Aldi berean, adierazi nahi dugu, azken egunotan greba deitu dugun sindikatuok geuk proposatutako LHKko prozeduraz haratago, gatazka honetan langileen antolakuntza, mobilizazioa eta greba dinamikaren indartzea izan direla akordiorako edukiak ekarri dituzten gakoak. Sindikatuok beti erakutsi dugu adostasunetara iristeko borondate, zintzotasun eta malgutasun berdina; Eta patronal eta hezkuntza sailari behin eta berriro galdegin diegun arren eduki eta plantemandu egokiak egiteko, zein gatazkaren irtenbidean inplikatzeko, eduki horiek eta inplikazio hori ez dira iritsi azken bi ikasturtetan 27 greba egun egin, aurtengo ikasturterako hilabeteko greba deialdia gauzatu eta beste bi greba egun arrakastatsu gauzatu ditugun arte. Horregatik, patronalaren eta hezkuntza sailaren arduragabekeria eta jokaera salatu nahi ditugu, eduki eta planteamendu horiek lehenago ez egin izanagatik.

Azkenik, ELA, STEILAS, eta CCOO sindikatuok grebalariak zoriondu nahi ditugu erakutsi duten tinkotasuna eta indarragatik zein lortutako akordioagatik.

Euskal Herrian 2019ko Azaroak 13an.



## **Los sindicatos ELA, STEILAS y CCOO han firmado un gran acuerdo en los centros de enseñanza de Iniciativa Social**

### **La organización de las/os trabajadoras /es y la intensificación de la huelga, claves que han forzado a las patronales a responder a las reivindicaciones y a Educación a implicarse**

La clave de este acuerdo histórico reside en una dinámica de huelgas y movilizaciones que ha incluido 29 jornadas de huelga. Gracias a la huelga y a las personas que la han secundado, las principales reivindicaciones de estas/os trabajadoras/es que llevaban más de 10 años sin renovar su convenio han tenido respuesta. Esto tendrá un efecto muy positivo en las condiciones de trabajo y, en consecuencia, en la educación que recibirán las/os alumnas/os.

**Ámbitos más precarizados y feminizados.** Entre los principales logros, está la reducción de 97 horas en la jornada anual para especialistas de apoyo educativo (que pasan de 1.390 a 1.293 horas), y que dispondrán de hora y media semanal para labores de coordinación (una hora para quienes tengan una jornada menor a la completa); igualmente, para las trabajadoras de primer ciclo de educación infantil, una reducción de jornada de 45 horas anuales (de 1.620 a 1.575 horas), y 125 horas anuales para coordinación.

**Recolocación y jubilación parcial anticipada.** Los sindicatos y la patronal hemos cerrado un acuerdo que contará con el respaldo del Gobierno Vasco, y que garantiza la recolocación de las trabajadoras y trabajadores que puedan perder su empleo por el cierre de aulas. Este acuerdo abarca a todo el personal del sector, y establece criterios objetivos para la pérdida de puestos así como para la recolocación, además del procedimiento a seguir. Incluye, así mismo, un elemento que consideramos elemental para que la recolocación sea efectiva: permite la creación de los puestos de calidad necesarios para poder efectuar las recolocaciones de quienes pierdan el empleo, ya que todas las trabajadoras y trabajadores que cumplan la edad tendrán derecho a acogerse a la jubilación parcial anticipada con una reducción de jornada del 75%; lo cual, acarrea la creación de empleos/puestos de trabajo a jornada completa y por tiempo indefinido como relevistas de las personas que se jubilan.

**Salarios.** En el periodo 2017-2020 las/os trabajadoras/es recuperarán casi la mitad del poder adquisitivo perdido en los últimos 10 años, en concreto, los salarios crecerán 4 puntos por encima del IPC repartidos en esos 4 años. Asimismo, los salarios de las profesoras y profesores licenciados del primer ciclo de ESO serán equiparados con los del segundo ciclo.

#### **Cargas de trabajo menores.**

El personal docente tendrá garantizadas 3 horas complementarias semanales para el trabajo personal, a realizar en el centro, y se computarán 40 horas anuales por el trabajo desarrollado fuera del centro escolar.

La jornada anual del personal de administración y servicios se reducirá en 30 horas (pasará de 1.585 a 1.555 horas), y dispondrán de 2 días libres retribuidos.

Sustituciones: La sustitución de las bajas imprevistas se realizarán a partir del tercer día; las que estén previstas de antemano se cubrirán desde el primer día, cuando vayan a suponer más de tres días.

**Formación Profesional.** Para el próximo curso (2020-2021) se negociará el reparto de la jornada de las y los docentes, manteniendo la proporcionalidad entre horas lectivas y complementarias; además del reparto de las 6 horas lectivas semanales para seguimiento de la formación en los centros de trabajo entre tutores-as y coordinadores-as, y la presencia de dos profesores-as durante las prácticas en aula o taller en los grupos de menos de 20 alumnos-as.

ELA, STEILAS y CCOO queremos destacar la importancia del acuerdo firmado, no solo porque recoge contenidos muy positivos que responden prácticamente a todas las reivindicaciones planteadas, sino también porque consolida, en contra de la voluntad de las patronales y del Gobierno Vasco, el reconocimiento del derecho a la negociación colectiva de las trabajadoras y trabajadores del sector. Este acuerdo evidencia que las trabajadoras y trabajadores de este sector tienen la posibilidad y el derecho de decidir y condicionar sus condiciones de trabajo.

Al mismo tiempo queremos manifestar que, más allá del procedimiento propuesto por los propios sindicatos convocantes de la huelga y seguido en el en el CRL en los últimos días, en este conflicto las claves que han posibilitado un acuerdo con contenidos han sido la organización de las trabajadoras y trabajadores, la movilización y la intensificación de la dinámica de huelga. Los sindicatos siempre hemos mantenido exactamente la misma voluntad, honestidad y flexibilidad para llegar a consensos; a pesar de que hemos emplazado repetidamente a patronales y Educación a que plantearan contenidos y propuestas adecuadas, o a que se implicaran en la resolución del conflicto, esos contenidos y esa implicación solo han llegado tras las 27 jornadas de huelga en los dos cursos anteriores, tras la convocatoria de un mes continuado de huelga para este curso y tras el gran seguimiento que han tenido los dos primeros días de huelga del citado mes. Por ello, queremos denunciar la irresponsabilidad y la actitud de patronales y Educación, por no haber planteado dichos contenidos y propuestas con anterioridad.

Por último, ELA, STEILAS y CCOO felicitamos a las y los huelguistas por la convicción y la fuerza que han demostrado y por el acuerdo que han logrado.

Euskal Herria, 13 de noviembre de 2019

